## 3.- KANPOKO MERKATARITZA

Kanpo merkataritzari dagokionez, 2010ean aldatu egin da esportazioen joera, 2009ko beherakadaren ondoren (-%22,8), %9,2 hazi baita. 2011n eta 2012ko lehen seihilekoan finkatu egin da joera hori %18,6 eta %10,5 egin baitu gora, hurrenez hurren. Inportazioek % 19,1 egin dute gora 2010ean, eta, beraz, aldatu egin da joera. 2011n baieztatu egin da joera hori, %6,4ko hazkundea izan baitute. %2,6 jaitsi ziren 2008an eta 2009an, ordea, %31,5eko murriztu ziren. Horrela, amaitutzat ematen bi urtetan izandako beherakada (%2,6 egin zuen behera 2008an, eta %31,5eraino jaitsi zen 2009an). 2012ko lehen seihilekoan joera aldatu da berriro; izan ere, Gipuzkoan %11,6 egin dute behera. Nabarmentzekoa da esportazioek indarra galdu dutela 2012ko bigarren hiruhilekoan (lehen hiruhilekoan %15,5 egin zuten gora, eta bigarrenean, berriz, %6,0), eta moteldu egin dela inportazioen beherakada (lehen hiruhilekoan %16,8 egin zuten behera, eta bigarrenean, berriz, %9,9).

## 3.- COMERCIO EXTERIOR

En el ámbito del comercio exterior, en 2010 las exportaciones muestran cambio de tendencia, con un crecimiento del 9,2%, tras la importante caida del ejercicio 2009 (-22,8%). Este cambio de tendencia se consolida en el ejercicio 2011 y en el primer semestre de 2012 con crecimientos del 18,6% y del 10,5% respectivamente. Las importaciones experimentan un incremento del 19,1% en el año 2010, suponiendo nuevo cambio de tendencia (confirmada en el ejercicio 2011, con un incremento del 6,4%) que pone fin a dos años de disminución: minoraron un 2,6% en 2008, mientras que en 2009 el decrecimiento alcanzó un 31,5%. En los primeros seis meses del presente ejercicio se constata un nuevo cambio de tendencia, dado que las importaciones de Gipuzkoa descienden el 11,6%. Hay que resaltar, que en el segundo trimestre de 2012 pierden fuerza las exportaciones (crecen el 6,0% después de crecer el 15,5% en el primer trimestre) y se ralentiza el desplome de las importaciones, que decrecen el 9,9% después de decrecer el 16,8% en el primer trimestre.

**3.1. taula.- Kanpoko merkataritzaren bilakaera konparatua**
**(bariazio tasak aurreko ekitaldiaren aldean, %-tan)**
**Cuadro 3.1.- Evolución comparada del Comercio Exterior**
**(tasas de variación respecto al ejercicio anterior %)**

| KONTZEPTUAK / CONCEPTOS | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 (I. sem.) |
|---|---|---|---|---|---|
| ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK EXPORTACIONES NO ENERGETICAS | | | | | |
| Estatua / Estado | 0,3 | -13,7 | 16,1 | 12,1 | 2,8 |
| EAE / CAPV | 4,9 | -25,9 | 19,3 | 14,7 | 4,4 |
| Gipuzkoa | 8,0 | -22,8 | 9,1 | 18,7 | 10,7 |
| INPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK IMPORTACIONES NO ENERGETICAS | | | | | |
| Estatua / Estado | -5,8 | -24,6 | 13,8 | 4,6 | -5,5 |
| EAE / CAPV | -0,8 | -38,2 | 26,0 | 9,7 | -8,3 |
| Gipuzkoa | -2,6 | -32,9 | 17,4 | 8,1 | -11,6 |

Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

Kanpoko merkataritzak estatuan, EAEn eta Gipuzkoan izan duen bilakaera konparatzean (ikus 3.1 taula) produktu energetikoak ez dira kontuan hartu ez esportazioetan eta ez inportazioetan. Horren arrazoia da Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan produktu horiek pisu erlatibo handia dutela, eta Gipuzkoan apenas direla garrantzitsuak. Hori dela eta, izan litezkeen distortsioak saihesteko eta konparazioa

A la hora de comparar la evolución del comercio exterior en el Estado, la CAPV y Gipuzkoa, recogido en el cuadro 3.1., se han excluido los productos energéticos tanto en las exportaciones como en las importaciones. La razón está en que estos productos tienen un peso relativo importante en el Estado y en la Comunidad Autónoma, pero no en Gipuzkoa, ámbito en el que apenas tienen representatividad. Por ello, para evitar posibles

homogeneoagoa egiteko, produktu horiek kanpoan utzi dira, eta hala esportazioak nola inportazioak ez-energetikoak dira beti.

**Esportazio ez-energetikoek** hazkunde tasa positiboak izan zituzten hemen aztergai den denbora tartean, salbu 2009an, nabarmen jaitsi baitziren 2008an hasitako nazioarteko merkataritzaren ahultzearen ondorioz. 2008an desazelerazio orokor bat gertatu zen, eta estatuko hazkundea gelditu zen eta EAEn eta Gipuzkoan tasa nabarmen txikiagoak izan ziren (10 eta 8,5 puntu portzentual inguru jaitsi ziren, hurrenez hurren). Desazelerazio hori okerrera joan zen 2009an, hazkunde tasa negatibo handiak izan baitziren hiru lurraldeetan: EAEn -%25,9 izan zen. 2010ean, esportazioek gora egin zute nabarmen estatuan eta EAEn (+%16,1 eta +%19,3, hurrenez hurren), eta moderatuagoa izan zen Gipuzkoan (+%9,1). 2011n, berreskurapena finkatu zen aztertutako hiru eremuetan, baina Gipuzkoan hasi zen gehien (%18,8). 2012ko lehen seihilekoan, berreskurapena aurrera jarraitu du, baina hazkunde tasak moderatuagoak izan dira (estatuan %2,8, EAEn %4,4 eta Gipuzkoan %10,7). Nabarmentzekoa da hazkunde horren arrazoiak lehen hiruhilekoan gehikuntza handia egotea, baina bigarrenean moteldu egin da (Gipuzkoako esportazio ez-energetikoak %15,6 hazi dira lehen hiruhilekoan eta %6,2 bigarrenean).

**Inportazio ez-energetikoei** dagokienez, hiru lurralde eremuetan bariazio tasa markatuagoak ageri dira. 2008an hiru esparrutan jaitsi ziren, eta bereziki aipatzekoa da estatuan izandako -5,8ko tasa. Tasa horrek nabarmen okerrera egin zuen 2009an; nabarmena da EAEn -%38,2ko tasa eta Gipuzkoan -%32,9ko tasa izatea. 2010eko lehen seihilekoan, inportazio energetikoak piztu ziren, hiru lurraldeetan hazkunde handia izan baitzen; EAEko %26,0ko tasa nabarmendu zen. Hazkunde hori mantendu da 2011n, baina tasa moderatuagoak dira (+%4,6 estatuan, +%9,7 EAEn eta +%8,1 Gipuzkoan). 2012ko lehen seihilekoan, joera aldatu da, eta hiru eremutan murriztu dira; bereziki aipatzekoa da Gipuzkoan izandako beherakada (-%11,6), baina azpimarratzekoa da beherakada horren arrazoia dela lehen hiruhileko jaitsiera handia

distorsiones y poder hacer una comparación más homogénea, se han excluido, por lo que tanto las exportaciones como las importaciones son no energéticas.

Las **exportaciones** no energéticas tienen tasas positivas de crecimiento en el periodo analizado, salvo en 2009 que decrecen considerablemente, como consecuencia del deterioro del comercio internacional que comienza en el ejercicio 2008. En 2008, se produce una desaceleración generalizada, estancándose el crecimiento en el Estado y con tasas notablemente inferiores en la CAPV y en Gipuzkoa (descienden alrededor de 10 y 8,5 puntos porcentuales, respectivamente). Esta desaceleración se ve empeorada en 2009, con tasas negativas de crecimiento elevadas en los tres territorios, destacando la CAPV con el -25,9%. En 2010, se constata una recuperación de las exportaciones significativa en el Estado y la CAPV (+16,1% y +19,3%, respectivamente) y más moderada en Gipuzkoa (+9,1%). En el ejercicio 2011 se consolida la recuperación en las tres zonas analizadas, pero es Gipuzkoa la que crece con más fuerza (18,8%). En el primer semestre de 2012, continúa la recuperación, pero con tasas más discretas de crecimiento (Estado 2,8%, CAPV 4,4% y Gipuzkoa 10,7%). Hay que destacar que estos crecimientos se deben al gran crecimiento del primer trimestre, que se ha visto frenado en el segundo (las exportaciones no energéticas de Gipuzkoa crecen el 15,6% en el primer trimestre y el 6,2% en el segundo).

Con respecto a las **importaciones no energéticas**, los tres ámbitos territoriales tienen unas variaciones más acentuadas. En 2008 disminuyen en los tres ámbitos, destacando la tasa del -5,8% alcanzado en el Estado. Esta tasa empeora drásticamente en 2009, destacando la tasa del -38,2% de la CAPV y del -32,9% de Gipuzkoa. En 2010 se observa una recuperación en las importaciones no energéticas, con crecimientos elevados en los tres territorios, destacando la tasa del 26,0% de la CAPV. Este crecimiento se mantiene en el ejercicio 2011, pero las tasas son más discretas (+4,6% en el Estado, +9,7% en la CAPV y el +8,1% en Gipuzkoa). En el primer semestre de 2012, cambia de tendencia y disminuyen en los tres ámbitos, destacando el descenso de Gipuzkoa (-11,6%), pero hay que destacar que este descenso se deben a la gran disminución

da, nahiz ta bigarren hiruhilekoan moderatua izan (Gipuzkoako inportazio ez-energetikoak %13,4 jaitsi dira lehen hiruhilekoan, eta %9,8 bigarrenean).

Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuen arabera, **Gipuzkoako ondasunen esportazioak** 2012ko lehen hiruhilekoan igo dira (%15,5), nahiz eta bigarren hiruhilekoan gutxiago izan (%6,0 hazi dira aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Oro har, lehen seihilekoan izandako hazkundea %10,5 izan da; tasa okerrera joan da nabarmen, kontuan hartuta 2011ko seihileko berean %16,8ko hazkundea izan zela.

**Taldeka aztertuz** gero, ikusi daiteke esportazioek gora egin dutela lau produktu taldetan, eta hazkundeak beste industria batzuen %4,5etik ekipo ondasunen %20,7ra doaz. Bestetik, esportazioak behera joan dira bost produktu taldetan, eta gorabeherak metal eta manufakturen -%0,9tik sailkatu gabeko poduktuen -%64,1era doaz (azken horiek 18 milioi euro jaitsi dira).

Aurreko urteetan bezala, ekipo ondasunak esportazio guztien erdia baino gehiago dira berriz ere: kopuru osoaren %56,4. Lehen seihilekoan talde honek %20,7ko bariazio tasa izan du aurreko urteko seihileko berberaren aldean, baina bere azpitaldeen barruan honako bilakaera du: makineria %19,1 jaitsi da (182 milioi €) eta garraio materiala, aldiz, %23,0 hazi da (158 milioi €).

Bigarren talderik garrantzitsuena esportazio osoen taldea da, metalak eta beren manufakturak hartzen dituena, eta esportazio guztien %24,0 biltzen du. Aurrez adierazitakoari jarraituz, talde horrek %0,9ko jaitsiera izan du 2012ko lehen seihilekoan (16,8 milioi euroko jaitsera); datu hori askoz okerragoa da 2011ko aldi berean izandako hazkundea baino (+%21,9).

Area geografikoen arabera, esportazioak gora joan dira, baita ere, area

del primer trimestre, que se ha visto moderada en el segundo (las importaciones no energéticas de Gipuzkoa decrecen el 13,4% en el primer trimestre y el 9,8% en el segundo).

Las **exportaciones de bienes en Gipuzkoa**, según los datos proporcionados por el Instituto Vasco de Estadística, han aumentado en el primer trimestre de 2012 (+15,5%), si bien han aumentado menos en el segundo trimestre, un 6,0% respecto al mismo trimestre del año anterior. En conjunto, el incremento del primer semestre se ha situado en el 10,5%, tasa que empeora notablemente el incremento del 16,8% registrado en el mismo semestre de 2011.

En el **análisis por grupos** podemos observar que las exportaciones aumentan en cuatro grupos de productos, con incrementos que oscilan entre el 4,5% de otras industrias y el 20,7% de los bienes de equipo. Por otra parte, las exportaciones disminuyen en cinco grupos de productos, con disminuciones que oscilan entre el -0,9% de metales y manufacturas y el -64,1% de los productos no clasificados (disminuyen en 18 millones de euros).

Los bienes de equipo siguen suponiendo más de la mitad de las exportaciones totales como en años precedentes, situándose en el 56,4% del total de las mismas. Este grupo, que presenta una tasa de variación en el primer semestre del 20,7% respecto al mismo semestre del año anterior, recoge la siguiente evolución dentro de sus subgrupos: la maquinaria ha aumentado un 19,1% (182 millones de euros), mientras que el material de transporte ha aumentado un 23,0% (158 millones de euros).

El segundo grupo en importancia, que concentra el 24,0% de las exportaciones totales, es el que engloba los metales y sus manufacturas. Este grupo, tal y como se ha mencionado previamente, ha registrado una disminución del 0,9% en el primer semestre de 2012 (16,8 millones de euros de disminución), que es un dato infinitamente peor al aumento que experimentó en el mismo periodo de 2011 (+21,9%).

Las exportaciones por áreas geográficas muestran también un aumento en

gehienetan. Halere, nabarmentzekoa da Italia eta Frantziara egindako esportazioen jaitsiera: lehen kasuan esportazioak %17,4 eta 33 milioi euro jaitsi ziren eta bigarrenean %7,5 eta 46 milioi euro. Esportazioen hazkundeari dagokionez, aipatzekoa da Mexikora egindakoak, %192,8 eta 137 milioi euro hazi baitziren.

OCDEn barruan dauden eta 27ko Europar Batasunekoak diren herrialdeek segitzen dute izaten Gipuzkoako produktuen merkatu nagusia: esportazio guztien %53,0 bertan metatzen da, eta lehen seihileko honetan okerrera joan dira (%0,5) hara egindako salmentak. Haren barruan, Frantziak, Alemaniak, Italiak, Erresuma Batuak eta Portugalek pilatu dute, hurrenkera horretan, esportazioen baliorik handiena: batera hartuta, seihilekoan esportatutako guztiaren %43,3 dira. Erresuma Batuak eta Portugalek gehitu dituzte gehien erosketak, hurrenez hurren 35 eta 11 milioi euro (hau da, %16,2 eta %7,7, hurrenez hurren). Alemaniak 2 milioi euro (%0,6) gehitu ditu erosketak eta, lehenago adierazi bezala, Italiak eta Frantziak erosketak jaitsi dituzte. Nabarmentzekoa da 27en Europar Batasunaren barruan badagoela 7 herrialdeko talde bat (oro har, berrikien sartu direnak) OCDEn sartu ez dena eta Gipuzkoako kanpo merkataritzan batere garrantzirik ez duena, nahiz eta 2011ko lehen seihilekoan eremu horretara egindako salmentak %43,6 igo ziren (9 milioi euro).

OCDEko gainerako herrialdeei dagokienez, ikus daiteke oro har 2011n hazi zirela (%33,6) eta 2012ko lehen seihilekoan igotzen jarriatu dutela (%35,8). Talde honetan bereziki aipatzekoa da Mexikora egindako salmenten igoera: 2011n %42,3 igo ondoren, 2012ko lehen seihilekoan %192,8 eta 42,3 milioi euro gehitu dira. Era berean, aipatzekoa da Estatu Batuetako esportazioen portaera ona, 2011n %22,2 eta 2012ko lehen seihilekoan %14,0 igo baitira.

OCDEkoak ez diren herrialdeen artean, Errusiak egindako erosketak 8 milioi euro jaitsi dira, eta lehen seihilekoan -%18,4an utzi dute urtearteko tasa. Bestetik ere, nabarmentzekoa da Amerika Latinorako esportazioak (Mexiko

casi todas las áreas. Destaca, sin embargo, el descenso en las exportaciones a Italia (con una disminución de las exportaciones del 17,4% y 33 millones de euros) y a Francia (con una disminución de las exportaciones del 7,5% y 46 millones de euros). En cuanto al aumento de las exportaciones hay que destacar las realizadas a Mexico, con un incremento del 192,8% y 137 millones de euros.

El mercado mayoritario de los productos guipuzcoanos sigue siendo los paises integrados en la Unión Europea de los 27 que pertenecen a la OCDE, que concentra el 53,0% del total exportado, y en la que hay un empeoramiento de las ventas del 0,5% en este primer semestre. Dentro de ella, Francia, Alemania, Reino Unido, Italia y Portugal encabezan, en este orden, a los países con mayor valor en sus exportaciones: conjuntamente representan el 43,3% del total exportado en el semestre. Reino Unido y Portugal son los países que más aumentan sus compras, en 35 y 11 millones de euros (16,2% y 7,7%, respectivamente). Alemania aumenta sus compras en 2 millones (0,6%) y como hemos mencionado anteriormente, Italia y Francia disminuyen sus compras. Cabe destacar que, dentro de la Unión Europea de los 27, existe un grupo de 7 países (en general, los de incorporación más reciente) que no se hallan entre los países pertenecientes a la OCDE y cuyo peso en el comercio exterior guipuzcoano es irrelevante, aunque en el primer semestre de 2011 las ventas realizadas a esta área han aumentado el 43,6%, 9 millones de euros.

Respecto al resto de países de la OCDE, observamos que en su conjunto aumentaron en 2011 (33,6%), y siguen aumentando en el primer semestre de 2012 (35,8%). En este grupo destaca el aumento de ventas a Mexico, que tras aumentar el 42,3% en 2011, el primer semestre de 2012 incrementa el 192,8% y 42,3 millones de euros. También cabe destacar el buen comportamiento de las exportaciones a Estados Unidos, que han aumentado el 22,2% en 2011 y el 14,0% en el primer semestre de 2012.

Entre los países no incluidos en la OCDE, cabe mencionar la disminución en 8 millones de las compras de Rusia, obteniendo una tasa interanual del -18,4% en el primer semestre. Hay que destacar el aumento en 97

gabe) 97 milioi euro igo izana (+%26,6); horien artean, Venezuela bereziki aipatzekoa da, bere erosketak igo baitira lehen sehilekoan (%%192,0, hau da, 108 milio euro gehiago 2011ko tarte berean baino). Txinarako salmentak ere asko igo dira portzentualki: %23,6 eta 24 milioi euro.

millones de las exportaciones a los países de America Latina (sin Mexico) (+26,6%), de entre los cuales destaca Venezuela, cuyas compras han aumentado el 192,0%, 108 millones más que en el mismo periodo de 2011. Las ventas a China también han experimentado un gran incremento porcentual (23,6% y 24 millones de euros).

**3.2. taula.- Esportazioak produktuen arabera**
**Cuadro 3.2.- Exportaciones por productos**

| PRODUKTU TALDEAK<br>GRUPOS DE PRODUCTOS | Balio absolutuak Valores Absolutos | | | | Bariazio abs. Variación Abs. | | Bariazioa (%) Variación % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2010 | 2011 | 2011 I sem | 2012 I sem | 11/10 | 12/11 | 11/10 | 12/11 |
| Nekazaritza produk. / Prod. Agrícolas | 205 | 233 | 115 | 125 | 28 | 10 | 13,8 | 8,4 |
| Produktu energetikoak /Prod. Energéticos | 33 | 36 | 20 | 17 | 3 | -2 | 7,8 | -11,0 |
| Kimika / Química | 95 | 93 | 46 | 45 | -2 | -1 | -1,9 | -1,8 |
| Kautxua eta plastikoak / Caucho y Plásticos | 226 | 279 | 127 | 142 | 53 | 15 | 23,4 | 11,9 |
| Papera / Papel | 313 | 334 | 184 | 175 | 21 | -8 | 6,7 | -4,6 |
| Metalak eta beren manuf./ Metales y manuf | 1.424 | 1.663 | 853 | 845 | 239 | -8 | 16,8 | -0,9 |
| Ekipo ondasunak / Bienes de Equipo | 2.939 | 3.603 | 1.643 | 1.984 | 664 | 340 | 22,6 | 20,7 |
| Makineria / Maquinaria | 1.815 | 1.937 | 955 | 1.137 | 122 | 182 | 6,7 | 19,1 |
| Garraio-mat. / Mat. de Transp. | 1.124 | 1.666 | 688 | 847 | 542 | 158 | 48,2 | 23,0 |
| Bestelako industriak / Otras Industrias | 311 | 333 | 166 | 173 | 22 | 7 | 7,0 | 4,5 |
| Sailkatu gabeak / No clasificados | 27 | 38 | | | 11 | -18 | 41,2 | -64,1 |
| | | | 28 | 10 | | | | |
| **Esportazioak, guztira / Total Exportaciones** | **5.572** | **6.611** | **3.182** | **3.518** | **1.039** | **336** | **18,6** | **10,5** |

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)
Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra. / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

**3.3. taula.- Esportazioak area geografikoen arabera**
**Cuadro 3.3.- Exportaciones por áreas geográficas**

| AREA GEOGRAFIKOAK<br>AREAS GEOGRAFICAS | Balio absolutuak Valores Absolutos | | | | Bariazio abs. Variación Abs. | | Bariazioa (%) Variación % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2010 | 2011 | 2011 I sem | 2012 I sem | 11/10 | 12/11 | 11/10 | 12/11 |
| 1. OCDE | 3.955 | 4.728 | 2.323 | 2.474 | 773 | 151 | 19,5 | 6,5 |
| EUROPAR BATASUNA 27 (OCDE) | 3.255 | 3.793 | 1.873 | 1.863 | 538 | -9 | 16,5 | -0,5 |
| Frantzia | 998 | 1.204 | 609 | 563 | 206 | -46 | 20,6 | -7,5 |
| Alemania | 683 | 800 | 403 | 405 | 117 | 2 | 17,1 | 0,6 |
| Italia | 380 | 352 | 190 | 157 | -28 | -33 | -7,5 | -17,4 |
| Erresuma Batua | 377 | 449 | 216 | 251 | 72 | 35 | 19,1 | 16,2 |
| Portugal | 268 | 290 | 137 | 148 | 22 | 11 | 8,3 | 7,7 |
| Polonia | 121 | 147 | 71 | 69 | 26 | -2 | 21,1 | -3,4 |
| Belgika | 97 | 121 | 53 | 43 | 24 | -10 | 24,7 | -18,5 |
| Suedia | 24 | 33 | 16 | 15 | 9 | -1 | 38,7 | -3,9 |
| Herbehereak | 61 | 67 | 33 | 39 | 6 | 6 | 10,5 | 18,4 |
| EB-27ko besteak (OCDE) | 246 | 331 | 145 | 173 | 85 | 28 | 34,4 | 19,3 |
| ESTATU BATUAK | 172 | 210 | 101 | 115 | 38 | 14 | 22,2 | 14,0 |
| TURKIA | 254 | 265 | 137 | 148 | 11 | 11 | 4,4 | 8,1 |
| MEXIKO | 137 | 195 | 71 | 209 | 58 | 137 | 42,3 | 192,8 |
| OCDEko besteak | 137 | 264 | 141 | 140 | 127 | -2 | 93,0 | -1,3 |
| 2. GAINERAKO HERRIAK | 1.617 | 1.883 | 859 | 1.044 | 266 | 185 | 16,5 | 21,5 |
| EB-27 GAINONTZEKOAK | 58 | 47 | 20 | 29 | -11 | 9 | -19,3 | 43,6 |
| ERRUSIA | 82 | 87 | 44 | 36 | 5 | -8 | 5,7 | -18,4 |
| TXINA | 180 | 247 | 103 | 128 | 67 | 24 | 37,0 | 23,6 |
| LATINOAMERIKA(Mexikorik gabe) | 503 | 725 | 366 | 463 | 222 | 97 | 44,2 | 26,6 |
| INDIA | 93 | 69 | 36 | 36 | -24 | 0 | -25,6 | 0,1 |
| GAINERAKOAK | 701 | 709 | 290 | 351 | 8 | 62 | 1,1 | 21,5 |
| **ESPORTAZIOAK, GUZTIRA<br>TOTAL EXPORTACIONES<br>(1) + (2)** | **5.572** | **6.611** | **3.182** | **3.518** | **1.039** | **336** | **18,6** | **10,5** |

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)
Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

### 3.4. taula.- Inportazioak produktuen arabera
### Cuadro 3.4.- Importaciones por productos

| PRODUKTU TALDEAK | Balio absolutuak Valores Absolutos | | | | Bariazio abs. Variación Abs. | | Bariazioa (%) Variación % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GRUPOS DE PRODUCTOS | 2010 | 2011 | 2011 I sem | 2012 I sem | 11/10 | 12/11 | 11/10 | 12/11 |
| Nekazaritza produk. / Prod. Agrícolas | 309 | 343 | 152 | 153 | 33 | 1 | 10,8 | 0,6 |
| Produktu energetikoak /Prod. Energéticos | 149 | 104 | 60 | 21 | -45 | -39 | -30,0 | -65,5 |
| Kimika / Química | 87 | 114 | 51 | 65 | 26 | 14 | 30,1 | 26,8 |
| Kautxua eta plastikoak / Caucho y Plást. | 176 | 184 | 93 | 93 | 8 | -1 | 4,5 | -0,6 |
| Papera / Papel | 192 | 249 | 129 | 98 | 57 | -30 | 29,6 | -23,7 |
| Metalak eta beren manuf./ Met. y manuf | 1.008 | 1.044 | 582 | 472 | 36 | -111 | 3,6 | -19,0 |
| Ekipo ondasunak. / Bienes de equipo | 976 | 1.064 | 545 | 484 | 88 | -61 | 9,0 | -11,1 |
| Makineria / Maquinaria | 753 | 850 | 432 | 379 | 97 | -53 | 12,9 | -12,2 |
| Garraio-mat / Mat. de Transp. | 223 | 214 | 113 | 105 | -9 | -8 | -4,2 | -7,1 |
| Bestelako industriak / Otras Industrias | 298 | 298 | 149 | 139 | -1 | -10 | -0,2 | -6,6 |
| Sailkatu gabeak / No clasificados | 3 | 4 | 2 | 1 | 1 | 0 | 19,3 | -25,7 |
| **Inportazioak, guztira / Total Importaciones** | **3.199** | **3.403** | **1.762** | **1.525** | **204** | **-237** | **6,4** | **-13,5** |

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)
Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

### 3.5. taula.- Inportazioak area geografikoen arabera
### Cuadro 3.5.- Importaciones por áreas geográficas

| AREA GEOGRAFIKOAK | Balio absolutuak Valores Absolutos | | | | Bariazio abs. Variación Abs. | | Bariazioa (%) Variación % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AREAS GEOGRAFICAS | 2010 | 2011 | 2011 I sem | 2012 I sem | 11/10 | 12/11 | 11/10 | 12/11 |
| 1. OCDE | 2.521 | 2.730 | 1.421 | 1.225 | 209 | -197 | 8,3 | -13,8 |
| EUROPAR BATASUNA 27 (OCDE) | 2.296 | 2.511 | 1.299 | 1.113 | 215 | -186 | 9,3 | -14,3 |
| Frantzia | 618 | 693 | 350 | 311 | 75 | -39 | 12,1 | -11,1 |
| Alemania | 489 | 564 | 293 | 244 | 75 | -49 | 15,4 | -16,8 |
| Italia | 308 | 323 | 160 | 159 | 15 | -1 | 4,8 | -0,5 |
| Erresuma Batua | 178 | 183 | 101 | 73 | 4 | -28 | 2,5 | -27,6 |
| Portugal | 89 | 99 | 47 | 43 | 10 | -4 | 11,1 | -8,1 |
| Polonia | 39 | 36 | 18 | 18 | -3 | 0 | -7,3 | 0,5 |
| Belgika | 97 | 111 | 58 | 56 | 13 | -1 | 13,6 | -2,3 |
| Suedia | 108 | 113 | 61 | 56 | 4 | -5 | 4,0 | -7,9 |
| Herbehereak | 168 | 150 | 86 | 47 | -18 | -40 | -10,7 | -45,9 |
| EB-27ko besteak (OCDE) | 202 | 240 | 125 | 107 | 38 | -20 | 19,0 | -15,8 |
| ESTATU BATUAK | 46 | 33 | 16 | 24 | -13 | 7 | -28,5 | 44,1 |
| TURKIA | 29 | 26 | 13 | 11 | -3 | -3 | -10,8 | -20,3 |
| MEXIKO | 7 | 4 | 2 | 2 | -3 | 1 | -46,0 | 30,7 |
| OCDEko besteak | 143 | 157 | 91 | 75 | 14 | -16 | 9,6 | -17,2 |
| 2. GAINERAKO HERRIAK | 678 | 672 | 341 | 300 | -6 | -41 | -0,8 | -11,9 |
| EB-27 GAINONTZEKOAK | 66 | 50 | 17 | 10 | -17 | -7 | -25,1 | -39,8 |
| ERRUSIA | 89 | 44 | 30 | 18 | -45 | -13 | -50,4 | -41,8 |
| TXINA | 298 | 305 | 151 | 157 | 8 | 6 | 2,5 | 4,1 |
| LATINOAMERIKA(Mexikorik gabe) | 57 | 56 | 31 | 27 | -1 | -5 | -1,2 | -14,8 |
| INDIA | 23 | 33 | 15 | 17 | 10 | 2 | 45,5 | 13,3 |
| GAINERAKOAK | 145 | 184 | 97 | 72 | 39 | -25 | 26,7 | -25,7 |
| **INPORTAZIOAK, GUZTIRA TOTAL IMPORTACIONES (1) + (2)** | **3.199** | **3.403** | **1.762** | **1.525** | **204** | **157** | **6,4** | **-13,5** |

(Balio absolutuak milioi eurokotan / Valores absolutos en millones de euros)

Iturriak: EUSTAT eta Aduanetako Zuzendaritza Orokorra / Fuentes: EUSTAT y Dirección General de Aduanas.

**Inportazioak** %16,8 jaitsi dira urteko lehen hiruhilekoan eta %9,9 bigarrenean. Oro har hartuta, %13,5ko hazkundea izan da lehen seihilekoan, hau da, askoz tasa txikiagoa izan da aurreko urteko seihileko berean %9,8 igo zirela kontuan hartuz gero.

Las **importaciones** bajaron un 16,8% en el primer trimestre del año, y un 9,9% en el segundo, resultando en conjunto una disminución en el primer semestre del 13,5%, tasa muy inferior al 9,8% de aumento registrada en el mismo semestre del año anterior.

**Produktu-talde guztiek** egin dute behera, nekazaritza-produktuak eta produktu kimikoak izan ezik: ekipo-ondasunak (-%11,1 eta 61 milioi), metalak eta manufakturak (-%19,0 eta 111 milioi), papera (-%23,7 eta 30 milioi), energia-produktuak (-%65,5 eta 39 milioi) eta beste industria batzuk (-%6,6 eta 10 milioi).

Todos los **grupos de productos**, excepto los de productos agrícolas y químicos, presentan disminuciones: bienes de equipo (-11,1% y 61 millones), metales y manufacturas (-19,0% y 111 millones), papel (-23,7% y 30 millones), productos energéticos (-65,5% y 39 millones) y otras industrias (-6,6% y 10 millones).

Esportazioetan bezala, metalak eta manufakturak (%31,0) eta ekipo-ondasunak (%31,7) dira nagusi.

Al igual que en las exportaciones, los dos grupos con mayor peso en las importaciones son los metales y sus manufacturas (31,0%) y los bienes de equipo (31,7%).

**Inportazioen jatorriari** dagokionez, horiek ia eremu guztietan jaitsi dira, salbu Polonian, Estatu Batuetan, Mexikon, Txinan eta Indian. Horrela, OCDEko herrialdeetan %13,8 jaitsi dira inportazioak (27 herrialdeen Europar Batasuna haien barne: %14,3). Tasa hori askoz txikiagoa da aurreko urteko seihileko berean izandako igoerarekin konparatuta (%8,3).

En cuanto a la **procedencia de las importaciones**, éstas han disminuido en prácticamente todas las áreas (Polonia, Estados Unidos, Mexico, China e India son la excepción). Así, disminuyen un 13,8% en los países de la OCDE (entre ellos, los pertenecientes a la Unión Europea de los 27, un 14,3%), tasa muy inferior al aumento del 8,3% experimentado en el mismo semestre del año anterior.

OCDEtik datozen erosketak Gipuzkoak inportatutako guztiaren %80,3 dira, eta OCDn sartutako Europar Batasuneko herrialdeak izan dira saltzaile nagusiak (%73,0). Haren barruan, eta esportazioetan bezala, Frantzia, Alemania eta Italia dira garrantzitsuenak, hiruek batera Gipuzkoako inportazioen %46,8 hartzen baitute. Hiru herrialde horietatik etorritako inportazioak jaitsi dira lehen seihilekoan (Frantzia 39 milioi euro, Alemania 49 eta Italia 1). Bestetik, nabarmentzekoa da Erresuma Batutik eta Herbehereetatik etorritako inportazioak asko jaitsi izana (-%27,6 eta -%45,9, hurrenez hurren) eta Poloniako inportazioak igo izana (2011ko lehen seihilekoan %5,9 hazi ondoren 2012ko lehen seihilekoan %0,5 igo dira); Polonia da OCDEn sartuta dagoen Europar Batasuneko herrialde bakarra inportazioak gehitu dituena.

Las compras provenientes de la OCDE representan el 80,3% del total importado por Gipuzkoa, siendo los paises de la Unión Europea integrados en la OCDE los mayores vendedores al concentrar el 73,0%. Dentro de ella, al igual que en las exportaciones, los países con mayor representación son Francia, Alemania e Italia, que conjuntamente concentran el 46,8% de las importaciones guipuzcoanas. Las importaciones provenientes de estos tres paises disminuyen en el primer semestre (Francia 39 millones, Alemania 49 millones e Italia 1 millón). Destaca, por otro lado, la bajada en las importaciones del Reino Unido y Paises Bajos (-27,6% y -45,9%, respectivamente) y la subida en las importaciones de Polonia, que después de crecer el 5,9% en el primer semestre de 2011, en el mismo periodo de 2012 crece el 0,5%, siendo el único país analizado de la Unión Europea integrado en la OCDE que aumenta las importaciones.

OCDEko gainerako herrialdeei dagokienez, nabarmentzekoa da Estatu Batuetako inportazioak (+7 milioi euro eta %44,1) eta Mexikokoak (+1 milioi euro eta %30,7) hazi izana.

Del resto de países de la OCDE, cabe destacar, también, el aumento de las importaciones de Estados Unidos (7 millones y 44,1%) y Mexico (1 millón y 30,7%).

OCDEren barruan ez dauden herrialdeek inportazio guztien %19,7 hartzen dute: batera hartuta 41 milioi € txikiagoak izan dira (-%11,9) aurreko ekitaldiko seihileko berberaren aldean. Talde honen barruan, Errusiak eman du murrizpenik handiena, 13 milioi euro gutxiago, eta urtearteko tasa -%41,8koa izan da. Horren atzetik doaz OCDEkoak ez diren 27ko EBko herrialdeak doaz, beren inportazioak 7 milioi euro jaitsi baitira (-%39,8). Txina eta Indiako inportazioak gehitu dira, 6 milioi euro (+%4,1) eta 2 milioi euro (+%13,3), hurrenez hurren.

Los países no incluidos en la OCDE concentran el 19,7% del total importado, y han decrecido en su conjunto en 41 millones de euros (-11,9%) respecto al mismo semestre del ejercicio previo. Dentro de este grupo, la mayor disminución se ha dado en Rusia con 13 millones menos (-41,8%). Le siguen los paises de la UE-27 no pertenecientes a la OCDE,, que registran una disminución de sus importaciones de 7 millones (-39,8%). Las importaciones de China e India aumentan, 6 millones (+4,1%) y 2 millones (+13,3%), respectivamente.

Amerika Latinoko herrialdeen inportazioek (Mexiko kontuan hartu gabe) behera egin dute oro har, nahiz eta horren arrazoi nagusia izan Brasili (-%25,2) eta Uruguayri (-%99,7)egindako erosketak nabarmen jaistea. Brasilek, berriz, indarra galdu du taldearen barruko inportazioei dagokienez; Txile aurreneko posizioan dago herrialde latinoamerikarrei 2012ko lehen seihilekoan egindako erosketen mailaketan: inportazioak %7,0 igo dira.

Las importaciones de los países de América Latina (sin tener en cuenta Mexico) disminuyen en su conjunto, si bien esto es debido, principalmente, al importante descenso en las compras a Brasil (-25,2%) y Uruguay (-99,7%). Mientras Brasil pierde fuerza en cuanto a importaciones dentro del grupo, Chile lidera el ranking de las compras a los paises latinoamericanos en el primer semestre de 2012, con un incremento de las importaciones del 7,0%.